

TOKIKOM


2009ko azaroa | 87. zenbakia

ailkar!

txorierriko al

Udane Goikoetxea

Goizeko izarretako ahotsa




JOSE RAMON ETXEBARRIA EUSKARAREN EGUNA TXIRRIN TXIRRIN ELKARTEA



15 URTE BAINO GEHIAGOKO ESKARMENTUA !!! SALDU ONDOKO ZERBITZURIK ETA ARRETARIK ONENAK DITUGU

UNOFFEN-UND OFFENLAGEN UND FREIZEITAKTIVITÄTEN

7" TW 10.4" BA STARTING DIRECTIONALLY FORWARD



TURKISH LITERATURE WITH FILED NAMES AND ON SALE

TEL: 944-677 1444 • www.merck.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Ama-goiia Guezuraga, Pospolin, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Igor Urrutiko-etxea, Fernando Larrondo, Oihana Astobieta, Zamudioko Argazki Taldea-IZAE, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea, Ane Bores (DerioKOMuni-kazioa), Alaitz Ziordia, Xabier Diaz eta Juanxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: AIKOR!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322


AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain har-tzen aldizkarian adierazitako esanen edo-ta eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BAILA

I. EUSKALIA I. EUSKALIA I. EUSKALIA I. EUSKALIA I. EUSKALIA I.



diruz lagundutako aldizkaria



- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Arteagako San Martin eliza**
- 12 Gurean izan da... Jose Ramón Etxebarria**
- 14 Gaztea eta... Pello Madariaga**
- 16 Derioko 321. urteurrena**
- 18 Udane Goikoetxea, esataria**
- 24 Euskararen Eguna**
- 28 India: koloreen herria**
- 30 Kepa gogoan**
- 32 Lehen sektorea sustatzen**
- 34 Elkarteak/Taldeak... Txirrin Txirrin elkarte**
- 36 Publierreportajea... Behargintza**
- 38 Teknologia... OpenOffice.org**
- 39 Aikorrizketan... Gora Euskal Herria?**
- 40 Sukaldaritza**
- 41 Denborapasa**
- 42 Agenda**





FERNANDO LARRONDO
(Irakaslea)

San Mames Barria. SMB. Ez berria. Barria. Zuzterrak hur, paraje daukazan adierazgarri. Ez da, ez, milaka bizkaitarren atxikimendu sentimentala eta, batez be, ekonomikoa behar dauen proiektu bat gizarteratzeko argudio txarra. Puntu positibo bat. Hainbeste maite eta jarraitzen dogun taldeak zelai barria behar dau, antza, bazkidegoa handitu, talde historiko bati jagokozan azpiegiturak eskaini eta, azken baten, hogeita batgarren mendeko goi mailako

kirolak –are gehiago futbolak– eskatzen dauen irudi konpetitiboa emon ahal izan dagian.

Bizkaian eta bizkaitarren artean hainbeste sentimendu eta emozino eragiten dituan taldeak, herritik bertotik sortua danak, Bizkaiko eta Euskal Herriko izena eta izana mundu zabalean ezagutzen emon dauen danontzat-zara-zu-geuria danak hori eta gehiago merezi dau. Honaino, pegarik ez.

Komeriak, baina, gaurko zelaia begirata ehun eta laurogei gradu bira emon da egingo dan stadium barria gora aldetako behar dan dirutzearen jatorria zehaztean etorri dira. Danok bat etorri gaitেকে Athletic taldea *más que un club* dala esatean, baina askotan entzun izan dot Athleticen inguruko gorabeherak, jabetzea eta kudeaketea tarteko, bazkideen ardura –eta ez beste inorenadala, urteroko kuotak zintzo-zintzo eurek baino ez dabezala ordaintzen eta.

Oraingo honetan, barriz, guztion poltsikora ari dira deitzen, gastuaren (inbertsinoaren)

ren) tamaineak eta Bilbok (Bizkaia) ezagutuko leukezan onurek guztion parte-hartzea eskatzen dabelakoan. Kontua hau da: Begi onez ikusten dogu, bilbotar, bizkaitar eta euskal zergadunok, itsulapikoan dogun ehun eta hirurogeita hamar milioi euro esku gitxi batzuen artean eta argitasunik gabe gestionauko dan proiektu honetan sartzea?

Erantzuna baiezkoa bada, konforme, baina, behintzat, aurrekontuaren laurena baino jarriko ez dauen alderdiari trukean zeozer emoteko eskatzekotan. Nire ustez, erabilera publikoa hainbat modutara bideratu da, holango stadium batek zeregin desbardinetan erabilgarria dan milaka metro koadroko azalera eukiten dau eta.

Erantzuna ezezkoa bada, zatiketea egi tea baino ez dago. SMBek, hasteko, eskatzen dituan berrehun eta hoge milioi euro horrek zati hogeita hamabost mila bazkide egin, eta bingo: 6.000 euro inguru, antxinako kilo bat, bazkide bakoitzeko. Huskeria bilbotar bizkaitar peto-petoentzat.

Bidegabekeria gelditzea zure esku ere badago

Hasan Bargouthi sindikalista palestinarren bisitari esker, Palestinako egoera ekonomiko eta sozialaren gogortasuna ezagutu dugu. Populazio palestinarren %30etik gora langabezia dago (%55, Gazan), eta %65 txirotasun muga azpitik bizi da (%85, Gazan). Batz besteko soldata 300 dolarrekoa da, bizitzaren kostua Israelgoaren parekoa izan arren. Han gutxieneko soldata 1.200 dolar da. Eskolara edo ospitalera joatea benetako odisea da, Israelek Zisjordanian jarri dituen 665 kontrol postu iraunkorak zeharkatzea, umiliagarria ez ezik, oso zaila delako jende askorentzat.


Krudeltasunaren adibide argienetarikoa bat kontrol postu horietan bertan erditu



IGOR URRUTIKOETXEA
(LABeko Nazioarteko harremanetarako idazkaria)

behar diren emakume palestinarrena da, edo han hiltzen diren gaixoen, anbulantziei ez dietelako utzi kontrola pasatzen. Beste alde batetik, urtearen hasieran 1.400 zibil palestinar sakailatu zituzten Gazan, 13.000 preso politiko...

Bargouthiren ustez, guztiok badugu zer egin egoera bidegabe honen aurka: Israeli boikota! Askok uste dugu Israelgo sionismoari boikot integralarekin erantzun behar zaiola. Boikotak min handia egiten diolako sionismoari, uneoro gogoratzen duelako genozidioaren erruduna nor den, eta bidegabekeria hau bukatzea nahi dugunoi aukera ematen digulako gure ekarpena egi teko.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, **AIKOR!** ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia ainduteko helbidea: Totoan. Arestji kalea 2, 48170. Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Zamudioko eskolako gurasoek herritarrei

Idatzi honen bidez gure kezka eta haserrearela helarazi nahi dizuegu eskola berria dela eta. Orain dela lau urte eskola berria egingo zen berri izan genuen, baina, jakin izan dugunez, gaur egun arte ez da aurre-pauso handirik egon. Hau da lau urte hauetan guk batu dugun informazioa:

-2005eko otsailean 2 urteko gelan matrikulatu ziren ikasleen kopuruari erreparatuta maila horretarako ikasgela bi zabaltzea beharrezkoa zela ikusi genuen. Hala ere, Hezkuntza Delegaziotik esan ziguten gela bakar bat baino ezin genuela zabaltu, eta soilik 18 ikasle onartu ahal genituela. Delegatuarengana jo genuen, gela libre bat egonda, ikasle guztiak zergatik ezin genituen matrikulatu jakiteko. Espazio falta zela-eta, eskola ezin zela bi lerrokoa izan esan ziguten. Hau da, 2 urteko gela bi zabalduz gero, etorkizunean ez zela lekurik izango ume guztiak gainontzeko mailetan hartzeko. Alkatea Delegazioko ordezkariekin bildu eta hiru urteko epean eskola berria egingo zutela esan zien. Hauek onartu egin zuten.

-2006ko urtarrilean planoak aurkeztu zizkigun Udalak.

–**2006ko ekainean**, zuzenketak egin ostean, plano berriak aurkeztu zizkiguten eta eskola Uribarri auzoan, anbulatorio atzean, altxatuko zela esan ziguten.

–**2007an** jakinarazi zitzaigun, biztanleriaren hazkundera zela-eta, eskolako orubea txikia gelditutako zela, eta hura Artea auzora eramango zela. Eskola hiru urteko epean eginda egongo zela esan zizuten ekainean.

-2008ko azaroan eskolako zuzendaritzatik jakinarazi zitzaigun Hezkuntza Delegazioak Zamudion institutu berri bat

zabaltzeko asmoa zuela.

–2009ko otsailaren 6an bilera egin genuen Udalarekin. Eskola berriaren proiektuaren aurkezpena egin zen, eta zailtzak argitu zitzairen gurasoei, baina aldaketetarako aukerarik gabe. Irailaren 1erako eskolaren lehenengo harria jarrita egongo zen konpromisoa hartu zen.

-2009ko ekainean Hezkuntzako obren arduradunekin batzartu eta euren zalantzak aurkeztu zizkiguten.

–2009ko irailean zuzendaritza taldea alkatearekin batzartu zen, eskolako lanak zergatik ez zeuden hasita jakiteko. Beste alde batetik, eskolako zuzendaria Hezkuntzako delegatuarekin eta obren arduradunarekin batu, eta euren aldetik ez zegoela inongo arazorik obrak hasteko esan zioten.

-2009ko urriaren 7an batzartu qi-

nen Guraso Elkartea, eskolako zuzendaritza, alkatea eta udal ordezkariak, eta Delegazioko baimena sinatuta erakutsi zigten.

Orain dela lau urte eskola berriaren beharra bazegoen, arazoa larriagoa da gaur egun. Datorren ikasturterako aurreikuspena kontuan hartuta, 2 urteko gelan matrikulatu behar diren umeek ez dute lekurik izango eta hau saihesteko, moldaketa prekarioak egin beharko dira gaur egungo eskolan.

Eskola berriaren lanak gutxienez urte bi luzatuko direla eta oraindik obrak eman barik daudela kontuan hartuta... zenbat ikasturte gehiago pasatu beharko ditugu egoera prekario honetan? Eskola berria orain!

Elizalde Zamudioko Guraso Elkarteak



Euskara eta euskal kultura hurbilduko zaizkie etorkinei

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Txorierrin bizi diren etorkinak gure hizkuntza eta kulturara apurka-apurka hurbildu nahi ditu, eta horretarako etorkinentzako bereziki prestatuta dagoen AISA ikastaroa bultzatu nahi izan du. Oro-tara 657 gutun bidali ditu Txorierrin erroldatuta dauden eta 16 urtetik gora duten etorkinen etxeetara, ikastaroaren berri emateko asmoz. Gutunok arabieraz, frantsesez, euskaraz eta gaztelaniaz bidali dira, Txorierriko etorkin gehienek hizkuntza horietako bat ulertzen baitute. Ikastaroa 60 ordukoa da eta 10 euro baino ez du balio. Gainera, klaseen %80ra joaten badira, dirua itzuli eta diploma bat emango zaie. Ikastaroan izena emateko epea abenduaren 11ra arte zabaldu da, eta dagoeneko 13 lagunek eman dute izena.

Udalekuak ikusgai

Aurten, 215 gaztetxok hartu dute parte UDA programan, Lezaman. Uztailean, hainbat ekitaldi egin dute eta haiek guztiak argazkietan eta bideoetan jaso dituzte monitoreek. Gaizka Peñafielek materiala batu eta film bat editatu du. Familia bakoitzari kopia bat emango zaio. Kopiak udal liburutegian har daitezke. Informazio gehiago: www.gaizkapenafiel.com/UDA_09_-_Pelikula.html.



Argazkia: Unai Ibarra

Sondikak Gizon Proben I. Txapelketa irabazi du

Azaroan Gizon Proben Txapelketa egin da lehenengo aldiz Galdamesen. Txapelketa Sondika taldekoek irabazi dute, hurrengo marka lortuta: 14 iltze eta 2 metro.

Txapelketan hiru taldek hartu zuten parte: Zalla, Muskiz eta Sondika. Talde bakoitza sei lagunek osatu zuten, eta parte-hartzaileek 1.500 kiloko harria eraman behar izan zuten arrastaka. "Oso pozik gaude garaipenarekin", esan digu Unai Ibarra, "Hala ere, proba oso lehiakorra izan da eta guztiok nahiko ondo ibili gara". Izan ere, sondikoztarrek hari-haritik irabazi zuten proba. "Muskizeko taldeak

14 iltze eta metro bateko marka egin zuen; eta Zallakoak, ia 14 iltze".

Hiru taldeek astean behin egin dute entrenamendua Leioako probalekuan, txapelketan erabili zuten harria bertan zegoen-eta. "Lehiatxo sortu zen gure artean, ea zeinek irabaziko. Parean ibili gara azkenean". Hau ez da lehenengo aldiz izan gizon probetan parte hartu dutena. "Sestaon eta Ibarrekolandan ere astoen kontra ibili gara eta probak geuk irabazi ditugu". Beste alde batetik, Muskizeko taldean Txorierrri eta Gallartakoak ibili ziren, muskiztarrek arazoak izan baitzituzten taldea osatzeko.



Impresoras de tinta : impresoras de tinta : impresoras de tinta : impresoras de tinta : impresoras de tinta

Zamudio

Impresoras de tinta : impresoras de tinta : impresoras de tinta : impresoras de tinta : impresoras de tinta

cianoplan
LA TINTA PERFECTA

BARAKALDO · BILBAO · LETXU · ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



antenas VIZcaya

TELECOMUNICACIONES 4109-K HOMOLOGATUTAKO ENPRESA

Urkiola, 2 - 48160 DERIO Bizkaia

- Antena kolektiboak
- Antena parabolikoak
- TB digitala, lurreko TB eta satellite bidezko TB
- Atezain automatikoak
- Bideo-atezainak
- Mantentze-kontratua
- Zirkuitu itxiko telebista

Gogoan izan *TXORIERRIN ABENDUTIK AURRERA*
ez dela emilituko telebista analogikoen bidez
eta LTD erara moldatu beharko dela

Deitu konpromiso barik ANTENAS VIZCAYARA

94 454 14 60



A young man wearing a black leather jacket, a red t-shirt with a white graphic, and a black cap is playing a white electric guitar. He is captured in a dynamic pose, with one leg raised and bent, as if performing. The background is a bright, sunny outdoor setting with green grass and yellow flowers.

Koadrila Eguna egin dute lehenengoz Lezaman

Antolatzaileek azaldu digutenaren arabera, ekitaldia antolatzea ez da erraza izan eta lan handia egin behar izan dute. "Baina askok datorren edizioan lagunduko digutela esan dute. Izan ere, ekimenak izan duen arrakasta ikusita, datorren urtean ere egiteko asmoa dugu". Beste alde batetik, ahaleginetan ibili dira antolatzaileak diru-laguntza lortzeko, baina ezin izan dute eskuratu eta ekimena apur bat garesti atera da. "Dena dela, laguntza jaso dugu herriko txakolin-egile batzuegandik eta edari-banatzailarengandik, eta Pilota Elkartekoei partidak atzeratu dituzte, bazkaria frontoian egin ahal izateko. Udala garbiketaz arduratu da".



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

*Artaleaga auzoa, 119
Iritzieta: 94 417 11 58
ZAMUDIO*



GALAISA
 1.ª FARMACIA DE ESPECIALIDADES
 941 544 541 - 941 541 752 541

Enlace con el mundo

“Bilbotik Txorierrira” ekimenak 100 lagundik gora batu ditu


Bilboko eta Txorierriko euskara elkar-
teak eta berbalagunek "Bilbotik Txorierri-
ra" mendi ibilaldia antolatu zuten urrian.
Ekimen horrek helburu bikoitza zuen:
alde batetik, hiri eta haraneko euskaltza-
leen arteko harreman estutzea; eta beste-
tik, gure ingurua ezagutzea. Ekimenean
100 lagun baino gehiagok hartu zuten
parte.

Ibilaldia Burdinezko Gerrikoan amaitu zuten, eta han hiru adituk azalpenak eman zituzten tropa frankistek Bilbo har-

tu zutenekoari buruz. Horrezaz gainera, mendizaleek gaur egun mendian dauden trintxerak eta bunkerrak bisitatzeko aukera izan zuten. Mendi ibilaldiaren ostean, indaba-jana izan zuten Zamudioko jate-txe batean. Bazkalondoa Joseba Tapia trikitilariak girotu zuen. Tapiak *Agur Intxorta maite* diskoaren abestiak eskaini zituen. “Oso ekimen polita izan da. Poztekoa izan da oso jende ezberdina helburu berarekin, euskara, mugitzen dela ikustea”, esan digute antolatzaileek.



Argazkia: Berbalagun



LTDren sintonizadoreak doan eskatzeko aukera, Lezaman


Txorierriin, abenduian utziko zaio telebista analogikoaren bidez transmititzeari, eta telebista-hargailuak prest eduki beharko ditugu, telebista digitala ikusi ahal izateko. Lurreko Telebista Digitalerako (LTD) prozesuan baztertuta gelditzeko arriskuan dauden taldeek LTDren sintonizadorea eska dezakete, doan, Lezamako udaltxean. Epea abenduaren 21ean amaituko da. Talde horien barruan hauek daude: %33 edo gehiagoko ikusteko edo entzuteko desgaitasuna dutenak; 2. edo 3. graduako mendekotasuna duten 65 urtetik gorakoak; eta bakarrik bizi diren edo 80 urtetik gorako beste pertsona batekin bizi diren 80 urtetik gorakoak. Aipatutako taldeek eskabidea eskura dezakete udaltxean. Horretarako, baldintzak betetzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dute.



XAKER

KİROL VEZİTLİKLERİ S.Ş.



KİROL VEZİTLİKLERİ S.Ş. olarak, kuruluşu ile amaçladığı
ve amaçladığı alanlarda faaliyetlerini sürdürmektedir.

KİROL VEZİTLİKLERİ S.Ş. olarak, kuruluşu ile amaçladığı alanlarda faaliyetlerini sürdürmektedir.

KİROL VEZİTLİKLERİ S.Ş. olarak, kuruluşu ile amaçladığı alanlarda faaliyetlerini sürdürmektedir.

KİROL VEZİTLİKLERİ S.Ş. olarak, kuruluşu ile amaçladığı alanlarda faaliyetlerini sürdürmektedir.

KİROL VEZİTLİKLERİ S.Ş. olarak, kuruluşu ile amaçladığı alanlarda faaliyetlerini sürdürmektedir.

KİROL VEZİTLİKLERİ S.Ş. olarak, kuruluşu ile amaçladığı alanlarda faaliyetlerini sürdürmektedir.

LARRADIETZU
 BILBOARRAIA, 607
 I EREKINEN 48930 PAMPLONA (BIZKAIA)

Gabonak sms-en bidez zoriontzeko lehiaketa

Sondikako Udalak "Gabonak sms-en bidez zorionak emateko Lehiaketa" antolatu du bigarren aldiz. Lehiaketak helburu hau du: gazteek Gabonak modu originalean zoriontzea, euren hizkeran eta sms-etara egokitutako mezuen bidez. Era bi daude lehiaketan parte hartzeko: sakelako telefonotik edo e-mailez. Sakelako telefonoetako mezuak 688 612 472 telefonora agindu behar dira eta egilearen izena jarri behar da. Mezu elektronikoak, berriz, kulturasondika@yahoo.es helbidera bidali behar dira eta harremanetarako telefonoa ipini behar da. Kasu bietan mezuak gehienez jota 130 karaktere izan beharko dituzte, hutsuneak barne. Lehiaketan parte hartzeko epea azaroaren 30ean, eguerdiko ordu 2:30ean, amaituko da. Besteak beste, originaltasuna eta mezuak dibertigarriak diren hartuko da kontuan sariak emateko orduan. Guztira sari bi emango dira: Netbook Acer Aspire One D250 ordenagailua, eta Samsun S5600 sakelako telefonoa. Epaimahairen erabakia abenduaren 18an, 19:00etan, jakinaraziko da liburutegian, eta irabazleen izenak Sondikako Udaren webgunean argitaratuko dira.



Mikologia-jardunaldiak, Txorierrin



Argazkia: Jesús Lagunas

Perretxikoen garaia da, eta asko dira horien bila mendira joaten diren lagunak. Perretxiko eta zizen gainean gehiago jakiteko asmoz, mikologia-jardunaldiak egin dira Txorierriko hainbat herritan. Aretxabala Larrabetzuko Kultura Alkartek, esate baterako, Perretxikoaren Eguna antolatu du hamalagarren aldiz. Herriko kaleetan 220 perretxiko mota jarri zituzten ikusgai eta perretxiko dastaketa egin zuten Aretxabala tabernan.

Placido Iglesias Errotarri Durangoko elkartearen presidenteak argibideak

eman zituen Derion, perretxiko jangarriak pozoitsuetatik ezberdintzen ikasteko. Mendi irteera bat ere egin zen, eta mendian jasotako aleak ikusgai jarri ziren Sollube kalean. Orotara 100 perretxiko mota ezberdin jaso ziren. Beste alde batek, azaroaren 30era arte argazki erakusketa egongo da Caja Navarran. Ekitaldiok Untza mendi taldeak antolatu ditu.

Sondikan ere hainbat ekintza antolatu dituzte mikologiari buruz: hitzaldiak, mendi irteera, aleak sailkatzea eta erakusketa, hain zuzen ere.

ASESORIA
Luz. Fernandez Aguirre, S.L.

Major 8-Donostia, 1
Tf: +34 943 21 14 - Fax: +34 943 21 15
48900 SANTOÑA (Bizkaia)

LIBERTATZ SONDIKO LIDERGUTUNA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK E.L.

JOSUK MARTINI - ANITA JIMENO

Donostia: Irujoak 10, 48001
Gasteiz: Alameda, 10, 48001
Bilbao: Aguirre, 10, 48900

Major 8-Donostia, 1
Tf: +34 943 21 14 - Fax: +34 943 21 15
48900 SANTOÑA (Bizkaia)

ATARRABI

Donostia: 14-48001
Tel: 943 821 833

GAZ 4000
Donostia: 14-48001

Donostia: 14-48001
Tel: 943 821 833
www.gaz4000.com



t: Itxaso Marina / a: Gaizka Eguskiza

Zer dio zor astronomiak Leonardo da Vinciri?

Astronomiaren Urtea dugu aurtengoa, 1609an Galileok asmatutako teleskopioaren 4. mendeurrena ospatzeko, besteak beste. Baina haren aurkikuntzak Errenazimenduaren ondorioak izan ziren, eta haren aurretik bizi izandako beste batzuek ahalbiderratu zuten Galileoren lana: Copernico, Brahe, Kepler... Eta horien guztien aurretik, Leonardo da Vinci.

Zientzia eta artearen ia arlo guztiak jorratu zituen. Pentsaezina da bera bezalako pertsona bat gaur egun izatea?

Gaur egungo gizarteak bestelako "jaki-tunak" bultzatzen ditu. Nolakoak? Hara! Garai batean kontakizun hau zebilen gure artean: "Ba al dakizu zer den espezializazioa? Gero eta gutxiagori buruz gero eta gehiago jakitea". Nik ikasleei hori kontatzen diet, gaiari buruz zerbait pentsa dezaten.

Zer nabarmenduko zenuke Leonardorengandik?

Arlo berriak aztertzeke zuen ausardia, eta ideiak lantzeke zuen irudimena.

Aparatu eta makina asko berak ezarritako printzipioetan daude oinarrituta; hegazkinak, adibidez.

Egia da pertsonak makinak laguntzaz hegaz egiteko posibilitatea irudikatu zuela, eta soluzioak proposatu zituela, hegaztien hegaldien ezaugarriak aztertuz. Baina hitzaldian gehiago aipatu ditut berak asmatutako oinarritzko mekanismoak, esate baterako pisuak jasotzekoak, boladun errodamendua, torloju amaigabea, engranajeak, engranajeekin konbinatutako kateak... Makina guztien oinarrian daude.

Zertan dira antzeko edo desberdin Errenazimenduko gizartea eta gaur egungoa?

Abiapuntu ezberdina da gurea. Metodo zientifikoa nahikoa zehazturik dago gaur egun, Galileok egindako zehaztapenei esker. Baina antza ere hartzen diot gure

"Euskal Herriak bere Errepropioa bizitzeko au"

JOSE RAMON ETXEBARRIA | EHUko irakaslea



Urrian Astronomiaren Astea ospatu genuen Txorierrin. As-tebeteen zehar planeta, galaxia eta asmakizunen gaineko tailerrak, hitzaldiak eta ekimenak izan ziren gurean. Jose Ramon Etxebarria irakasleak Leonardo da Vinciren lana hurbildu zigun.

gizarte euskaldun txikian. Izan ere, Euskal Herriak bere Errenazimendu propioa bizitzeko aukera duela uste dut.

Zein zentsutan?

Euskal Herria hiltzorian egon da, eta

oraindik ere ez dago osasuntsu. Baina egoeraren larritasunaren kontzientzia hartu dugu hainbat euskaldunek eta berpizteko ahaleginean dihardugu. Berpizte edo Errenazimendu hori propioa da, geure



nazimendu kera du”

*“Hizkuntza guztiak
gai dira edozein
jakintza-arlo lantzeko,
pertsonengan
bizirik badaude”*

bidea egiten ari baikara. Eta bide hori guk
geure nortasuna lantzetik gauzatuko da
arlo guztietan; hau da, kulturean, politi-
kan... eta batez ere hizkuntzan.

**Euskara teknikoko irakaslea zara,
baina fisika irakaslea ere izan zinen.
Zelan dago euskara eta zientziaren
arteko harremana?**

Duela hogeita hamar urte Espainiako
presidentea izandako Suarezri erantzun
nion bezala erantzungo dizuet. Zientzia
euskaraz lantzeko euskarri bi baino ez dira
behar: zientzia egitea eta euskara erabil-
tzea. Posiblea da, borondatea badago; eta
batzuek badugu. Hizkuntza guztiak gai
dira edozein jakintza-arlo lantzeko, per-
tsonengan bizirik badaude; hau da, bene-
tan erabiltzen badira.



“Euskal Unibertsitatea lortu gabe dago oraindik”

Hamabost urte luze eman zituzten Etxebarriak eta beste bost irakaslek Leioako
campuseko atarian, pankarta baten atzean. Irakasleek Euskal Herriak bere irakas-
kuntza sistema propioa izatea eskatzen zuten, eta horren haritik, irakasleria propioa
izatea. Hau da, irakasleak Estatuko funtzionarioak izan beharrean, Euskal Herrikoak
izan zitezen eta kontratu laboral iraunkorra eduki zezaten. “Oso pozik esan dezaket
aukera hori badagoela gaur egun, legez onartuta. Eta onarpen hori neurri handian
guk egindako lanari esker etorri dela”. Etxebarria eta beste kide bi 2007an sartu
ziren berriro irakasle EHUn. “Unibertsitateko lanera itzultzea ederra izan da niretzat.
Gutiz motibaturik nago lanean, gauza berriak egin eta pauso berriak emateko
prest. Zeren Euskal Unibertsitatea lortu gabe baitago oraindik. Baina prozesuan
gaude”.

Udonido
Unibertsitatea

Elizagaiteko kalea 12, 1. 48.100.1000
www.gip-udonido.com

metel-errotzeria
rasan, s.l.

PVCzko kilitxoak
Soluzio- eta berrantolamenduak
I elhiz inditxoak (egur eta aluminiozkoak)
Zabiz berrilakoren haurak

LEIOA
94 411 88 33 - FAX: 94 411 88 34
www.rasan.es - www.rasan.es

LEIOA
94 411 88 33 - FAX: 94 411 88 34
www.rasan.es - www.rasan.es

"Protagonismoa gustatzen jat"

PELLO MADARIAGA | aktorea

Izar bat jaio da Lezaman. Pellok Daviden papera egin dau *Zigortzaileak* pelikulan, lehendabiziko filma izan dana 13 urteko gaztearentzat. Beharra laster estreinatuko dabe Euskal Herriko aretoetan.



t/a: Itxaso Marina

Zelan ailegatu jatzun pelikulea egiteko aukerea?


Gurasoek emon eusten castingaren barri eta aurkeztera animatu ninduen, niretzat aukera ona izan leitekealakoan. Ez neban askorik pentsau, zine mundua betidanik gustatu jatalako. Protagonismoa gustatzen jat, jentearen atentzinoa erakartzea.

Ondo moldatu zinan castingetan?

Bai, ez ziran zailak izan eta ni neu be ez nintzan urduri ibili. Lehenengo castinga Bilbon egin zan eta han neure burua aurkeztu behar izan neban. Hurrengoak Portugaleten izan ziran eta gidoi batzuk emon euskuezan ikasteko. Amagaz eta aitagaz egin nebazan entseguak. Castingetara mutil eta neska asko aurkeztu ginan eta akabuan zazpi gaztetxo hartu ginduezan, filma egiteko. Egundoko poza hartu neban eta lagunek autografoa emon beharko neutsela esaten eusten.

Zeri buruzkoa da pelikulea?

Bullingaren ganekoa da, eskolan ikaskideen artean gertatzen dan abusuaren ganean. Eta hau islatzen dau: batzuetan



gauzak egiten doguz besteei oso min handia egiten ari gatzakezala konturatu barik.

Eta nor da David, zure pertsonaia?

Oso ikasle alferra da eta ez jako ezer interesatzen. Bati dabil besteei iseka egiten.

Beraz, gaiztoaren paperea egitea tokau jatzu. Gustura ibili zara?

Bai! Ganera, ni be nahiko alferra naz.

Zein lekutan filmatu dozuez eszenak?

Portugaletako ikastetxe baten, Algoritana eta Berangon. Pelikula bat ikusten dozunean, pantailan agertzen diran aktoreak baino ez dozuz ikusten, baina atzetik ekipo handia dago: zuzendaria, kameralariak, mikrofonoak... Jente asko dago zuri begira, baina aurretik entsegatu badozu, ez dago arazorik. Oso esperientzia polita izan da eta oso ondo tratatu nabe. Gainera, asko ikasi dot aktoreengandik. Eskerrak emon qura deutsedaz guztiei.

Asko ikasi behar izan dozu?

Ez, izan be nire pertsonaiak ez dau berbaldi handirik. Halandaze be, gogor ekin deutset entseguet. Batzuetan neuk bakarrik entsegatu dot; beste batzuetan, qurasoakaz... baita amamaqaz be!

**Eta askotan errepikatu behar izan
dozuz eszenak, filmatzean?**

Gehienak bai. Filmatzea udan egin genduan... eta oso bero handia egoan! "Zigortzaileak" gaiztooi aurre egiten deuskun taldea da eta, noski, zigortzen gaitue. Zigor batzuk politak izan dira alde batetik; baina bestetik, oso gogorrak. Ni hotzak jota ibili naz, zorabiatu egin naz... Baina oso esperientzia polita izan da orokorrean.

Zelango aktorea zarala esango zeunke?

Pozik nago egindako lanagaz, dana hobetu leitekean arren. Umorezko pape-
retan ikusten dot neure burua. Aktorea
izatea gustatuko litxakit, eta Hollywoode-
ra joatea... eta zuzendari ospetsuakaz



*"Hotzak jota ibili
naz, zorabiatuta...
Baina oso esperientzia
polita izan da"*

*“Nik banekien
bullinga egoala,
baina ez nekien hain
gauza serioa zanik”*

behar egitea, Amenabar edo Tarantino-gaz, esatearren. Baina ikasketak dodaz lehentasuntzat momentu honetan. Besteak beste, Macaulay Culkin, Hugh Jackman eta Mel Gibson aktoreak gustatzen jataz.

Pelikulea urtarilaren inguruan estreinatuko da. Zergaitik joan beharko ginateke ikustera?

Oso interesgarria dalako eta pelikula-
ren "onengandik" zein "gaiztorengandik"
gauza asko ikasiko dozuezalako. Ganera,
barreak be botako dozuez. *Bullinga* oso
gauza txarra da, eta uste baino kalte han-
diagoa egiten dau, fisikoki ez eze ikaske-
tetan be. Nik banekien *bullinga* egoala,
baina ez nekien hain gauza serioa zanik.

GUCCIANI
servizi deportivi, s.r.l.
viale dell'Industria, 1 - 40138 Bologna
- TEL. 051/261111 - FAX 051/261112

IMMUNOCOR-LIQUIL KINOLINGUE
Tel. 041/5071131 - Fax 041/507114

OPTIKA İKUSLAN
Gözcübaşı 3
Zaferançiftliği
Tel: 94 352 252 18





Derioztarrek denboran zeharreko bidaia egin dute

Elizatea orain 321 urte Gernikako Batzar Nagusietan sartu zela ospatzeko

a: Ane Bores (DerioKOMunikazioa)

Ikusmin handia zegoen eta kiroldegia leporaino bete zen saio bietan. Gernikako Batzar Nagusiek 1688ko irailaren 24an onartu zuten San Kristobal Derioko elizatea, eta derioztarrek onarpen prozesua antzeztu zuten urriaren 24an, urteurrena zela eta.

Antzezlanak Fernando Ansoleagak zuzendu du eta 100 herritar inguruk hartu dute parte; zinegotziak eta kultura nahiz kirol elkarteetako kideak tartean direla. Entseguak apirilean hasi ziren egiten eta, guztiek euren papera ondo baino hobeto ezagutzen bazuten ere, aktoreen artean urduritasuna zen nagusi oihala ireki baino lehen. Baina primeran irten zen dena, eta aktoreek antzezpen bikaina egin zuten. Lanaren kokatzea ere oso egokia izan zen, eta pertsonaiek Madril-





go denda batean erositako arropa jantzi zuten. *Alatriste* filmeko jantziak ere denda horretan erosi ziren. "Guztiok pozik gaudete: zuzendaria, aktoreak, Udala..." esan digu Jesus Lagunas kultura zinegotziak. "Herritarrek oso erantzun ona eman digute eta 1.000 bat derioztarrek ikusi dute lana. Gonbidapenak berehala agortu ziren, saio bietarako. Arrakasta itzela izan du ekimenak".

Nondik gatoz

Antzezlanaren bost zatik osatu dute, eta haietan garai hartako bizimodua, ohiturak eta egoera politikoa islatu dira. Lehenengo ekitaldian, hiru belaunalditako






Fernando Ansoleaga, zuzendaria

*"Orain hiru mendeko
bizimodua, ohiturak
eta egoera politikoa
islatu dituzte
antzezlanaren bidez"*

emakumeak azaldu ziren etxean. Bigarren, eliztarrek mezetatik irteten ziren. Hirugarren ekitaldian, baserriarrek agertu ziren azokara bidean, eta laugarrenean Martin obrako protagonistak eta lagunak solasaldia izan zuten Batzar Nagusietan sartzeko beharrei buruz. Antonio Miguel de Zaldia eta Ugarte jaunak Derio onartzeko eskaera eraman zuten Batzar Nagusietara bosgarren ekitaldian, eta batzarkideek eman zuten botoa. Antzezlanaren amaieran desfile bat egin zen, danboradarrak lagundurik. Desfileko pertsonaia bakoitzak garai hartan Derion zeuden 20 baserrietariko bat adierazi zuen. "Oso ekitaldi polita izan da, herritarrei udalerriraren sorrera eman zaie ezagutzera. Izan ere, aurrera begiratu behar dugu, baina nondik gatozen jakinda".

Besteak beste, Ana Madariaga Bizkai-ko Batzar Nagusietako presidentea, Batzar Nagusietako ordezkariak eta Txorie-rriko alkateak izan ziren Derion, antzezlanaren ikusten eta herriaren historia hobeto ezagutzen.





“Egun ederrez, egunon”

UDANE GOIKOETXEA | esataria

Ofizioa eta afizinoa bat dira Udane Goikoetxea derioztarrantzat. Hamazapi urte zituela hasi zan beharrean *Bizkaia Irratian* eta harrezkero 10 urte igaro dira. Gaur egun *Goizeko Izarretan* saioa zuzentzen dau egunero. Bere eskutik, gaurkotasunaz ongi jaubetuta hasten dogu goiza bizkaitarrok.

Zergaitik kazetaritza?

Kazetaritzak berak baino euskal kulturak eta euskerak erakarri nabe txikitatik. Eta kazetaritzaren bidez aukerea dot euskeraz behar egiteko, eta euskal kultura lantzeko.

Gazte-gazterik hasi zinan irratian, zelan ailegau jatzun aukerea?

Uda zan. Bizkaieraz alfabetatutako gazte perfila beteten neban antza. Eta kazetaritza ikasten nengoan. Behin honezkero, joan dira ia hamar urte.

Beharrera goizaldeko 5:30ean sartzen zara, bizimodu latza da?

Goiz da, baina bizimodu hau ona da. Goiztarra izateak logura kronikoaz gainera pozaldi galantak be ekarten deustaz.

“Kazetaritzearen bidez aukerea dot euskeraz behar egin eta euskal kulturea lantzeko”

Eta informazinoa, argitu aurreko bakea, beste behar batzuk egiteko denporea, ezer ez egitekoa...

Sei urte daroazuz entzuleak “Egun ederrez, egunon” esaldiagaz agurtzen. Zertan datza Goizeko Izarretan irratia?

Lehenengo berbea eta azkena beti

dira berberak: Egun ederrez, egunon. Bien bitartean badakizue, aktualidadeak agintzen dau...

Eguna eguneko izenburuakaz hasi gura izaten dogu gehienok –dinoe CIES-en moduko audientzia neurketek– eta beraz, egunaren argazkia egin ohi dogu. Munduko izenburuak, Bizkaiko kronika zabala, geure inguruko beharginakaz alkarrizketak, euskal kultura eta tradizioa tartekatu, anekdotak kontatu, musika kantatu, etxeko gazteenakaz eskolara joan aurreko lehiaketea, kirolak, itsasoa, eguraldia eta trafikoa... Goizeko zazpietatik bederatzietara minutu asko dago, eta segundoak gehiago.

Eta aidean egoten ez zaranean be,

zoro moduan leku batetik bestera ibili behar, ezta?

Nik kulturaren jarraipena egiten dot, eta kalerik kale joan behar dot prentsaurrekoak jarraitzeko. Ganera, Bilbon gero eta prentsaurreko gehiago dagoz kulturari lotutakoak. Ondoren, prentsaurreko horreek landu egin behar dira, alkarrizketak egin... egunean egunekoa.

Irratian entzuteaz ganera, telebistan be ikusi zaiegun; Hamaika Telebistan hain zuzen be.

Halako esperientziak beti dira ederrak eta aberasgarriak. Ganera, lan talde bikaina dabil bertan eta oso da hori estimatzekoa. Gizarte gaiak lantzen doguz barikuetan, *bat eta bat* magazinean. Hamaika telebista gaztea izan arren proiektu interesgarria da eta gaurkoz Bizkaira mugatzen bada be, laster zabalduko da Euskal Herriara.

Zure lehendabiziko esperientzia da telebistan?

ETB3rako lantxuren bat egiteko erea euki dot.

Gustura zagoz irratian; gustura, telebistan. Zeinetan gusturago?


Ez neukez alderatuko. Irratia, irratia da; eta telebista, telebista. Ofizioa afizino da gaur gaurkoz. Jesarlekuan parau, aidean adierazoten dauen argi gorria biztu eta dana ahaztu! Eta ez ezer nahastu. Ostantzean, ondo esanak gogoan hartu eta txarto esanak parkatu.

Eta gitxi balitz, idatzizko prentsan be moldatzen zara ondo: *Gaztezulo* eta AIKOR! aldizkarietan, Ikastolen Alkartea-





dena da
Gauzen onetxetako
nabaria



ARTEAGA koltxoi-denda

Barrika Seginaria • 94 454 51 47 • BERGÜ

www.hastens.com



aren webgunean...

Herritar moduan danetan ezin hartu leike parte... Lanak orduak eskatzen ditu. Eta bizitza pribaduak be bai. AIKOR! aldizkarian idazteko aukerea eukitea eskerrik asko esatekoa da. Hilebete honetan aita-tutakoez gain *Elkar* aldizkarirako txataltxu bat be egin ahal izan dot.

Esparru danetan murgiltzen dan kazetaria zara, neska!

Dan-danetan, ez dakit. Ze, danetan egon ezkerro, inon ez gagoz. Baina, bai, ahalegina egiten dot, ikasteko batez be.

Liburu batzuetan be hartu dozu parte: Euskaldunaren anekdotak I eta Irakurketa ozena Bizkaian lantzeko materiala, besteak beste. Zelan joan jatzu liburugintza arloan?

Ondo. Horreek talde-lanak izan dira eta taldean behar egitea positiboa da. Esperientzia handiko pertsonak asko la-

guntzen dabe. Esperientzia polita izan da eta ganera, osagarria. *Irakurketa ozena Bizkaian* liburuak, esate baterako, zelan irakurri behar dan jakiteko eta lanean aplikatzeko balio izan deust, Iñaki Gaminderi esker.

Aurkezpenetan be ez zara txarto moldatzen...

Aurkezpenak egiteak norbere lanera-ko zirkulua zabaltzea dakar. Esan gura da, ez zara lan eta leku edo giro bakarrera mugatzen. Izan leitekez aurkezpenak edo ostantzeko lanak, baina kontrastea ezinbestekoa da. Eta lan egitea, prest egotea, ikaste eta ikustea, ezagutzea, hori be bai. Telefonoak sarritan jotzen deust eta poztekoa da.

Badakizu ezetz esaten?

Baietz esatearen besteko garrantzia dauka ezetz esaten jakiteak. Inoz aurkezpen bi euki dodaz egun berean: batera

joan, erropa kotxean aldatu eta beste aurkezpenera korrika. Baina denporea behar da dana ondo prestetako.

Oso neska polifazetikoa zarala uste dogu guk; zelangoz kazetaria zarala esango zeunke zuk?

Itaun gatxa da hori... Lehen aitatu moduan, ez dot aterik ixten.

Errefusatu dozu inoz lanen bat euskeraz ez izateagaitik?

Bikoizketa lanak egin dodaz gaztele-raz, publizitatea grabau... baina euskaldun moduan, beti babesten dogun hori, euskerea eta euskal kulturea, egunerokoa lantzeko modu bat da euskeraz behar egitea. Egunero.

Ezinbestekoa da kazetariak arlo horreek guztiak, edo ahalik eta gehienak, menderatzea, zure ustez?

Bakotxa dan modukoa da. Nik ez daukat nahiko perspektibarik halako baieztar-

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Irakurketa ozena proiektua

Irakurketa ozena proiektua

Plataformak

Arazorik gabe...



902 54 08 54 www.arlan.net

DERIO

Merkataritza Txartela



%5eko beherapena

(ordainketa geroratuetan izan ezik)

abenduaren 15era arte

+ puntu metagarriak



NAFARROAKO
RURAL KUTXA
CAJA RURAL DE NAVARRA

*“Irratiak dauan magikoa
da irudirik ez dagoala,
eta hori ezin da
beste komunikabide
bategaz ordeztu”*

penik egiteko. Etorkizuna espezializazioan dago eta horren aldeko apustua egingo neuke. Dana dala, egunerokoan egitea eta ekitea be bai. Arraina itsasoari begira badakizu zelango begiakaz egoten dan? Ba bizitzaren aurrean holan... ondo behintzat ez. Etxeak ni ez nau azpian harrapauko!

Kultura munduan zagoz espezializautu zu...

Gusturen (euskal) kultura kontuetan egiten dot uger. Baina ur bitara be pozik ibiltzen naz. Goizeko Izarretan saioaren ostean Bilboko eta ingurueta prentsaurrekoetan egoten naz, eta gero kronikak idatzi eta albisteetan eskaini. Astegoienero kultureari eskainitako tarteak be emititzea egokitu jat. Urte luzez konposadu

*“Kultura mobimentu
handia dago Txorierrin.
Herritarrek sortutakoa
eta herritarrentzat; hori
barik, ez gara ezer”*

ohi izan dot euskal kulturea ardatz eban irratsaioa. Horrez ganera, Eusko Ikaskuntza deritzan saioa be egokitu jatan aspaldi eta horrexetan be badihardut. Atsedena hartu dot Euskal Idazleen Elkartearen *Komaxo Artean* saioa amaitzeagaz. Ederra zan oso astean-astean idazleak alkarriketaz. Baina astean liburu bat irakurtea lan nekeza da, liburuek hasieratik harrapau arren. Alkarriketak egiteak be badauka berea. Gurako neuke baina, itauntzen dodana baino hobeto erantzuten jakitea. Edo korapiloen mistika aska-tzen. Letrak, barriz, ondo kateatzen. Deskribatzen eta definiten. Jakin gurako neuke ausentziaren bolumena jaisten eta da-nen belarriak asetzen. Baina, itaunari erantzunez, goizeko egunonagaz

*“Gurako neuke,
itauntzen dodana
baino hobeto erantzuten
jakitea. Edo korapiloen
mistika askatzen”*

batera kulturearen joskile lanak egiten bikain na-bil oraingo.

Sasoi onean dago Bizkaiko kulturea?

Dakienari itauntzea onena. Baina emoten dau baietz. Aukera gehiegi be badagoala esan leiteke. Aspaldion bizpahiru prentsaurreko izaten dira egunean, ekitaldiak eta proiektuak aurkezteko. Lan asko egiten da herrietan zein uriburuan.

Txorierrin?


Baita! Danetariko ekitaldiak egoten dira, eta edade guztietakoentzako eskaintza. Era berean, euskerea bultzatzen da. Bertoko taldeek behar asko egiten da-be eta beti babesagaz. Herritarrek sortutakoa herritarrentzat: hori barik, ez gara ezer.

Bizkaia Irratian, bizkaieraz. Gai-nontzeko komunikabideetan?

Danok alkar ulertzeko biderik errazena euskera batua erabiltea da. Guk bizkie-raz egiten dogu behar, bizkaierak be bere lekua izan behar daualako; ganera, horretan bereizten gara. Baina bata ez dau bestea kentzen. Batuak bere lekua dauka, baina bizkaierak eta gainontzeko euskalkiek be bai. Ostantzen, galdu egingo geunke geure izaerea.

Proiekturik esku artean?

Konplikaturako prestatzen gaitue edo gara, ez sinplerako. Sinpleki, orekan eta koherente ibiltea. Dakidanean jakinarazoko. Baina, desorekak ondo etorten dira. Indar egin behar da bertikaltasunari eusteko, bertikalean hobeto ikusten dira gauzak.



Udane, Xabier Lete eta emozinoz betetako laguna



Hamar urtean pertsonaia asko alkarriketako ditu Udane: idazleak, aktoreak, abeslariak... "Alkarriketa danak izan dira bereziak; danek daukie berea". Baina galdetu deusagunean, gogora etorri jako Xabier Letegaz izandako anekdotea.


"Bada denporea alkarriketea egin gura neutsala Xabier Leteri. Gaixorik egoan orduan, eta oso sasoi txarrak pasetan. Pilo bat kostau jatan Pamiela argitaletxeak konbentzidutea bere telefo-

noa emoteko: "Ez da bape erreza. Ez dau alkarriketarik emoten, badakizu ez dabilela ondo...". Eta ez eusten emon, jakina. Ni penaz lotu nintzan; ganera, Durango-ko Azoka sasoia zan... Hortik hilebetera irratian esan eusten: "Udane, zuretzat da telefonoa. Xabier Lete da". Eta nik: "Bale, bale; itxaron, estudio batera joango naz korrika eta pasau deia estudiora". Nik hilebete lehenagotik nebazan prestatuta alkarriketa, liburuak eta dana, deituko

eban esperantzaz. Eta deitu eban! Alkarriketea grabau neban. Oso alkarriketa polita izan zan; bera zabaldu egin zan eta danetarik kontau eban... Ganera, niri asko gustetan jat bere poesia, gehien gustetan jatazanetakoa da. Pasillotik lagun bat ebilen eta kristaletik ikusi eban Leteren liburuak nebala eskuan. Emozinoz estudiora sartu eta telefonoa hartu eban. Nik esan neutsan: "Aizu, alkarriketa baten erdian gagoz eta ezin dozu hau egin". Baina pentsau neban: "Beno, hain emozionatuta badago, itxiko deusat beragaz berba egiten. Zer egingo dot, ba?"

Donostiara, arin-arin

Eta jarraitu neban berari esaten: "Telefonoa momentuan pasau behar deus-tazu, ze alkarriketaren grabazinoa ez dot amaitu...". Konturatu nintzanerako telefonoa eskegi eban besteak. Eta Letek berak deitu ebanez, ez neban erarik beragaz bat egiteko. Ez neutsan esan ez eskerrik asko, ez ezer... Oso disgustata nengoan: "Zer pentsauko ete dau gizonak...!". Hortik hiru astera egunkarian irakurri neban batek liburuak aurkeztuko ebala Donostian, eta sarrera Letek egingo ebala. Beste alde batetik, hiru aste horreetan dei asko jaso nebazan alkarriketaren haritik: kazetariak, argitaletxeak... Alkarriketea CD batera grabau, kotoxa hartu eta Donostiara joan nintzan arin-arin. Letegaz izan nintzan eta parkamena eskatu neutsan gertatutakoagaitik: "Baina, neska, zelan etorri zaran Donostiaraino...". Euskal Herriko kazetari guztiak bere atzetik ebazala esan neutsan, eta grabazinoa emon neutsan. Lasaitu nintzan. Bai, hori izan da egin dodan alkarriketarik bereziena. Txarto pasau neban".



Adin guztiei zuzendutako ekitaldi sorta zabala, Euskararen Egunean

Euskararen Eguna Zamudion izango da aurten. Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta bertako kultura eta kirol elkarteak buru-belarri ibili dira txorierritar guztientzako ekitaldiak antolatzen eta emaitza erabat aberasgarria izan da. "Parte-hartzea oso handia izan da eta herriko talde guztiek, euskaldunek zein euskara ez dakitenek, egin dituzte ekarpenak", esan digute Euskara Zerbitzutik. Denen artean, egitarau dotorea antolatu dute euskara eta euskal ohituren inguruan.

Goi mailako bertso saioak hasiera emango dio aurtengo Euskararen Egunari. Ekitaldia azaroaren 27an, 20:00etan, izango da Zamudioko frontoian, eta han punta-puntako bertsolariak arituko dira bat-batean: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga eta Igor Elortza, hain zuzen ere. Gai jartzailea Arkaitz Estiballes izango da.

Hurrengo egunerako, zaturako, hainbat ekitaldi antolatu dira familia osoarentzat. Frontoian puzgarriak jarriko dira bi urtetik sei urtera bitarteko umeei zuzenduta, eta zazpi urtetik gorakoek tailer ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute. Hiru tailer egingo dira: herri kirolak, txalaparta eta buztinezko euskal figurak. Seme-alabak puzgarrietan eta tailerretan ederto pasatzen duten bitartean, gurasoak Zamudiotorreraino hurbildu ahalko dira; gurasoak eta nahi duen jende guztia, noski. Jon Aroztegi eta Gotzon Zubiaur mendizaleek GI eta GII zortzimiletan udan izandako esperientziaren berri emango dute bertan. Hitzaldia eguerdiko ordu batean izango da.

Eta eguna borobiltzeko, Taberna Ibiltaria

Besteak beste, goi mailako bertso saioa, antzerkiak eta musika-ekimena izango dira azaroaren 28tik abenduaren 3ra bitartean, Zamudion. Derioko Institutuan hitzaldiak egingo dira abenduan zehar.



aldeak one
Berriraketa eta Informazioa
Tel. +34 945 414 111

Arakle Piel Aguirre
Euskararen Eguna

Agenda
Euskararen Eguna

Agenda
Euskararen Eguna

destre
Bikotek eta Berriraketa
Berriraketa eta Berriraketa
Berriraketa eta Berriraketa
Berriraketa eta Berriraketa
Berriraketa eta Berriraketa
Berriraketa eta Berriraketa

eizaldz
Euskararen Eguna


taria taldeak saioa eskainiko du iluntzean. Hitzordua arratsaldeko 7etan jarri dute, frontoian. Euskal Kantutegitik kantak aukeratu eta horien hitzak idatziko dituzte paperean. Ekitaldian parte hartzen dutenen artean orriak banatuko dira, kantak mundu guztiak abestu ahal izateko. Eguraldi ona izanez gero, tabernaz taberna ibiliko dira; eta eguraldi txarra badago, frontoian bertan egingo dute saioa. Izan ere, astebururako frontoia hotzetik babesteko apainduko dute eta berogailuak ere jarriko dira.

Erreminta, bizitzarako

Eskoletako umeentzako ekitaldiak as-
tegunetan zehar egingo dira eta orotara,
1.029 lagunek gozatuko dute horietaz.
Ekitaldiok Zamudioko kiroldegian izango
dira. Zazpi urtetik bederatzirterako arteko
umeei ederto pasatuko dute astelehene-
an Barre Laborategia ekimenarekin, eta
Zirika Zirkus pailazoaren emanaldiak lau

*“Zamudioztarren
erantzuna oso ona izan
da, izan ere, euskara
dakitenek zein ez
dakitenek egin dituzte
ekarpenak Euskaren
Eguna antolatzeko”*

Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga,
Igor Elortza eta Maialen Lujanbio



*“Euskara gure erreminta
bizitzarako izan behar
da, antolatzaileen
ustez, eta gakoa
gazteengan dago”*

urtetik sei urtera bitarteko umetxoei gozaraziko die martitzenean. Ostegunean Sun Magoaren txanda izango da. Saioa 10 eta 11 urteko gazteontzat da.

Bertsolaritza klasean dabiltzanek letra berria jarriko diote euskal kantu ezagun bati, eta gainontzekoei irakatsiko diete ekitaldietan kanta dezaten. Ekitaldi bakoitzaren aurkezpena Zamudioko herri ikastetxeko ikasleek egingo dute.

Beste alde batetik, hitzaldi zikloa egingo dute abenduaren 9tik 23ra bitartean institutuan. Hitzaldiok hauek eman go dituzte: Kukubiltxo antzerki taldea, Jon Aroztegi mendizalea, Gaizka Peñafiel trikitilaria eta Juan Luis Goikoetxea idazlea.



Hasieran aipatu bezala, oso parte-hartze handia egon da Euskararen Eguna antolatzeko batzarretan eta ondorioz, ekitaldiak ere erabat arrakastatsuak izatea espero dute antolatzaileek. Zamudioztarrek ez ezik Txorierriko gainontzeko euskaltzaleek ere hitzordua dute Zamudion. “Saiatu gara euskara eta euskal kulturarekin lotutako ahalik eta egitaraurik erakargarriena txorierritarrei eskaintzen”.

Zirika Zirkus



Datu eta inkesten arabera, euskararen ezagutza gero eta handiagoa da, eta gero eta lagun gehiago dira euskarazko tituluren bat dutenak. Hala ere, kalean euskara gutxi entzuten jarraitzen da, batez ere gazteen artean. Ahaleginak egin arren, hori gaiztatu den handicapa da. “Euskara izan behar da gure erreminta bizitzarako, eta lortzen ez dugun bitartean txarto gabilta. Gakoa gazteengan dago. Eurengana hurbiltzeko modua lortu behar dugu, pixkanaka-pixkanaka euren artean ere euskararen normalizazioa lortzeko. Gazteentzat antolatzen diren aisialdi-ekimenak abia puntua izan litezke”.


Jon Aroztegi



Bizian
Fisioterapia
& Osteopatía

Erribilla: Solinia Añelara
1.º planta - 4.º - 17.
Mendi Mendizalea Nazioarteko
Elkarteko kidea: 124
1000. kidea

Zamudio 31. behean
42000. Nazioarteko
Tel.: 944 562 276
Berehako tel.: 944 498 577
www.bizian.es



bentitu zeure
gorputzaren
buntza kalitatea

EUSKARAREN EGUNA

TXORIERRIN 2009


AURTEN ZAMUDION

AZARDAK 27 OSTIRALA

20:00etan Zamudioko frontoian

Goi mailako bertso saioa:

Malalen Lujanbio, Aitor Mendilluze, Unai Iturriga,
Igor Elorza. Gai jarleailea: Arkaitz Estiballes



AZARDAK 28 LARUNBATA

12:00etan Zamudioko frontoian

Uneentzako tailerrak eta trukeentzako pugetariak

- Herri kirol tailerra
- Txalaparta tailerra
- Buztinazko musika figuratzena

AZARDAK 28 LARUNBATA

13:00etan Zamudioko dornatzen dispositibo emanekia eta hitzaldia

Trekking Baltoro GI-GII ra igotzea

Zamudioko Arantza mendia labirintoa erakutsi (Jen Arretegi eta Beldun Beldunak)



AZARDAK 28 LARUNBATA

19:00etan frontoi aurrean hasita

"Taberna ibiltaria" taldea

IRAKASLEAKOAK




AKOPIA 30
ARTALDEA
JAKI 300
POLKOLDEA

5:00 13:00
p. 13:00 g.

ESKOLAK
7-8-9 URTE

IRAKASLEAKOAK



AKOPIA 1
ARTALDEA
JAKI 300
POLKOLDEA

13:00 13:00
p. 13:00 g.

ESKOLAK
4-5-6 URTE

"OLIN MADIA"



AKOPIA 1
ARTALDEA
JAKI 300
POLKOLDEA

13:00 13:00

ESKOLAK
10-11 URTE

Instituzio hitzaldia elandun zehar: Jen Arretegi mendakoa, Beldun Beldunak, Juan Luis Beldunak Mendakoa eta Kukulitza taldea



AKOPIA 30
ARTALDEA
JAKI 300
POLKOLDEA





Kasten herria; koloreen herria

a: Alaitz Ziordia



Alaitz Ziordia zamudioztarrak hilabete eman du Indian, bertakoengandik hurbil bizi-ten. Hala ere, ez da behar erreza izan indiarren egunerokotasunean murgiltzea. Alde batetik, hizkuntza dela-eta; eta bestetik, turistak diru-iturritzat dituztelako.

India kasten arabera antolatzen da eta kasta bakoitzak bere rola du. Emakumeak lan ezkutua egiten du, prestigio gutxikoa: etxean, obretan, soloan... Baina eder eta lirain azaltzen da edozein egoeratan. Euren sari koloredunek deigarriak dira hango paisaian. "Bidaia-arentzat, milioika estimulu duen herrialdea da. Milaka kolore dantzan, etengabe-ko zarata, jendetza, araurik gabeko trafiko kaotikoa, zikinkeria, sineskerak..." Argazkiak ikusgai daude Susterrak Zamudioko tabernan.







Kepa gogoan

Kepa Derioko mutiko bat zen, orain urtebete joan zitzai-guna. Kepari haurren zeroid olipofuszinosis neuronal berankorra diagnostikatu zioten eta gaixotasun hori arre-bak ere duela jakin dute orain dela gutxi. Lagunek Kepa Sangroniz elkarteak sortu dute, gurasoei eta arrebari babesa eta laguntza emateko.

a: K.S. elkarteak

Haurren zeroid olipofuszinosis neuronal berankorra genetikoa da eta nerbio sistema zentralari egiten dio kalte. Gaitza-ren ohiko sintomak muskuluen koordina-zio galtzea eta konbultsioak izaten dira eta umeek 2 edo 4 urte dituztenean azal-du ohi dira. Denboraren poderioz, gaixo-tasunak gorputz osoari eta zentzumenei erasaten die. Gaixoen bizi-itxaropena oso laburra da.

Kepak lau urte zituenean konturatu ziren gurasoak zerbait ez zihoala ondo. Sarritan erortzen zen lurrera, eta gurasoek medikuengana jo zuten. Hainbat proba egin zizkieten beste gaixotasun batzuk baztertzeko, eta tratamenduak ere eman

zizkieten, sintomak arintzeko. Baina umeak ez zuen hobera egiten. Medikuek susmatu zuten zein gaixotasun izan litekeen, eta Suitzara bidali zituzten analisi batzuk, bertan azter zituzten. Emaitzetan azaldutakoaren arabera, Kepak Haurren zeroid olipofuszinosis neuronal berankorra eragiten zion gene bat zuen. Emaitzak hona ailegatu zireneko, Kepa jada ez zen gure artean. Urte bi eta erdi igaro ziren lehenengo sintomak agertu zirenetik gaixotasunak umea eraman zuen arte.

Hiru kasu, Estatuan

Oso gaitza arraroa da eta ez du osabi-derik. Estatuan hiru kasu baino ez dira ezagutu: Kepa bera, horren arreba eta beste ume bat, Toledokoa. Baina ohikoa-

Puxikak, zerura

Keparen lagunek eta senideek ekitaldi berezia egin zuten urrian, umearen oroimenez. Larrabarri base-rri ondoan oroitzapenezko plaka jarri zuten, eta lagunek eskutitza irakurri zuten. Marrazkiak ere egin zituzten, eta horiek marmita batean batu eta plakaren alboan lurperatu zituzten. Hara bertaratutakoek bertsoa abestu zuten eta puxikak askatu zituzten zerura. Txalapartaren soinuak hasiera eta amaiera eman zion ekitaldiari.

goa da Estatu Batuetan eta Ipar Europan.

Gutxi dakigu gaixotasun horri buruz; hala ere, ikerketa bide bi zabaldu dira: ba-ta, Txinan; eta bestea, Estatu Batuetan. Txinan entzimekin dabilta lanean, eta tratamendua lokala da. Hau da, gorputz atalak banan-banan tratatzen dira. Baina ez da oso itxaropentsua, eraginak aldi ba-terakoak direlako. Tratamenduak 40.000 euro balio du.

*"Gaixotasun genetikoa
da eta nerbio sistema
zentralari egiten
dio kalte"*

*"Ikerketa bide bi zabaldu
dira: bata, Txinan, eta
bestea, Estatu Batuetan"*

Estatu Batuetan ikertzen dabiltzana datorren urtean jarriko dute martxan, eta esperimentalta izango da. Saioretan 16 umek hartuko dute parte, doan. Ikerlariak oso baikor azaldu dira eta itxaropen handiak dituzte sendabideari dagokionez. Tratamendua honetan datza: gaixoari birusa sartzen zaio gorputzean, eta hura gorputz osora zabaltzen da. Ondorioz, birusak gorputz atal guztietan ditu eragin onuragarriak.

Sare soziala

Derion Kepa Sangroniz elkarteak sortu da. Elkarte honek sare sozial bat eratzea du helburu, Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko. "Ahalik eta pertsona gehienekin jarri nahi dugu harremanetan, elkartearekin bat egiteko prest dauden jakiteko. Momentua helitzen denerako, eta Keparen arrebari tratamenduotako bat hartzeko aukera badu, euren gaitasuna jo eta laguntza eskatzeko". Elkarteari laguntza mota bi eman ahal zaizkio: dirua eta kontaktuak. Txinako tratamendua oso garestia da eta gurasoek han izango dituzten gastuak gehitu behar zaizkio horri. Eta Estatu Batuetako tratamendua doakoa izan arren, hark ere gastu handiak ekarriko dizkie. "Baina, zoritxarrez, dirurik behar ez bada, lagun baikoitzari itzuliko zaio bere diru ekarpena".

Beste alde batetik, baten batek eza-gutuko balu medikuntza arloan harremanak dituen inor, elkarteak asko eskertuko luke haren berri ematea. "Estatu Batuetan egingo diren saioak oso itxaropentsuak dira eta baliteke Keparen arrebari aukera bat izatea".

Elkarteak webgune bat jarriko du martxan laster, eta kontu korrontea ere irekiko da. Informazio gehiago: akepas@hotmail.com.



TXORIERRI
Estatu Batuetan

Elkartea sortu da, Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko.

Elkartearen helburua da Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko.

Elkartearen helburua da Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko.

Garaitoltearen ikertzailearen laguntza

ITE IKERKETA JARDUNALDIA
Ondarribiako Lehen Ikastetxea

IKERKETA JARDUNALDIA
Ondarribiako Lehen Ikastetxea

IKERKETA JARDUNALDIA
Ondarribiako Lehen Ikastetxea

KUMAT
Laguntza

Elkartearen helburua da Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko.

Elkartearen helburua da Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko.

AM
Laguntza

Elkartearen helburua da Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko.

Elkartearen helburua da Keparen arrebari eta gurasoei babesa eta laguntza emateko.

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIO-ERAKUNTZAK

LEZAMA

ETXENBITZAK, MERKADURITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAKUNTZAK: LEHISTE HANDIAK:

ORDAINTZEKO ERAKUNTZEN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaiolearen zuzendaria, TFE (Lezama)
Lezama (Lezama)

Lehen sektorea bultzatzen dabilz Larrabetzun

Baserritar eta herritarren arteko harremana sendotzeko, inizatiba sorta zabala jarriko dabe martxan: tailerrak, ibilbide didaktikoak eta lantegi iraunkorra, besteak beste



Orain dala urtebete martxan ipinitako Larrabetzuko Azokea ekimena Gurgide alkarte bihurtu da udabarrian. Alkartea herriko ekoizleek eta kontsumitzaileek osatzen dabe, eta ostalariak be bat egin dabe proiektuagaz.

a: Agus Saiz

Gurgide alkarreak hiru helburu nagusi ditu: kalidadezko produktuak bultzatzea, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko hartu-emonen berreskuratzea, eta baserri ingurua sustatzea. Horretarako, hainbat behar-ildo hartu dabez erronkatzat epe laburrerako.

Abenduan kontsumoaren ganeko tailerrak antolatzeko asmoa dabe, eta dagoeneko kontaktuan ipini dira herritarrekaz

Arlo horretan dabezan kezka ezagutze-ko. Tailerrok kontsumitzaileen iradokizun arabera antolatuko dira. Alkarreak ekoizle eta ostalarien arteko harremana sendotu gura dauan beste alderdi bat da. Herriko tabernek eta jatetxeek oso bestelako eskaintza dabe eta bakotzak dituan beharrianak kontuan hartuta, ekoizleek sasoiko produktu bat edo bestea eskainiko deuse, menuetan-eta erabili dagiezan.

Larrabetzuko eskolako jantokian 150 ume inguruk bazkaltzen dabe egunero. Eskolako menuetan bertako produktu batzuk erabiltzen badira be, ekoizle eta jantokiaren arduradunen arteko harremana estuagoa izatea gura dau alkarreak, baserritarrek soloko beharra eskolaren premietara be egokitu ahal izateko. "Eskolak egitea aztertzen gabilzan beste aukera bat da. Umeak baserrietara joan eta baserritarrek, ekoizten dabezan produktuen arabera, beharra zelan egiten daben ikusi dagien". Horrezaz ganera, Larrabetzutik ibilbide didaktikoak antolatzeari pentsau dabe, herritarrek bertako paisajea eta baserriak ezagutu dagiezan. Baserrietan erosketak egiteko aukerea be izango dabe. Ibilbideak marka bereziz seinaleztatu-ko dira.

"Hurrengo urteari begira lehenengo sektorearen eta kontsumoaren ganeko lantegi iraunkorra egitea gustauko litxaki-



gu. Batzuk aitatzearren, berbaldiak, filmak, dastatzeak eta sukaldaritza tailerrak egingo ziran”.

Produktu izarra

Larrabetzuko Azokea proiektua mar-
txan ipini zanean, herria azoka erraldoi
bihurtzeko asmoa eben antolatzaileek.
Hau da, baserri bakotxa saltoki moduan
funtzionau egiala. Bide horretatik, Gurpi-
de alkarteak Merkadu Txikia eta Bertako
Produktuen Azokea antolatu ditu irailean
eta urrian. Ekimen horreek biek euki
daben harrera ona ikusita, alkartekoak
lantzean behin, sasoiari sasoiako edo, pla-
zan merkadua antolatzeko aukerea az-
tertzen dabilz.

Beste alde batetik, Larrabetzuko indabeak ospe handia euki eban aspaldian. Indaba mota hori Larrabetzun bertan landatzen dauan baserritarrik ez dago gaur egun, baina alkartekideek ikerketak egin eta indabea Zallan eta Zaragozako Hazien Bankuan topatu dabe. "Helburua hau da: hori benetakoa Larrabetzuko indabea dan egiaztatu eta halan bada, berreskuratzeari. Politiki litzateke produktu berezi bat eukitea herrian; produktu izar bat".

Gurpide alkartearen baruruan 16 ekoizle dagoz, eta honeek eskaintza zabala egiten deutsee kontsumitzaileei: barazkiak, lekaleak, fruta, oilaskoak, txakolina, txarrikoa, esnea eta ogia, besteak beste. Ganera, batzuek etxera eroteko zerbitzua be badabe; hau alkar-teak indartu gura dauan beste arlo bat da. "Gure filosofia kontsumitzaileak



Gurpide

eta produktoreak harremanetan ipintzea da, nekazaritza sustatzea eta kalidadezko kontsumoa eskuratzea. Kontaktua ahalik eta handiena izan behar da, produkzioa ahalik eta handiena izateko eta ahalik eta jente gehiagoarengana heldu ahal izateko. Eta ondorio moduan, interesgarria litzateke gazteek baserrian ogibidea topau leikiela. eta sektorea berbiztu daitela”

Gurpide alkartea pausak emoten
dabil jasangarritasunerantza eta herriko
ekonomiaren suspertzerantza. Ilbilbi-
de horretan laguntzea jaso dabe
aurton Larrabetzuko Udaletik eta
Jata Ondo landa garapenerako al-
kartetik.

[illegible]

10 Types of People in a Company

YOU

1. THE NEWBIE

2. THE KNOW-IT-ALL

3. THE TEAM PLAYER

4. THE CREATIVELY DIFFERENT

5. THE CHAMPION

6. THE CHALLENGER


7. THE CHAMELEON

8. THE CHARMER

9. THE CHIEF

10. THE CHIEF

Ezetz Zamudiotik Asturiasera bizi



Euskal Herrian gauza asko gertatzen dira tabernetan. Gezurra badirudi ere, Txirrin Txirrin Zamudioko txirrindularitza taldea ere taberna batean sortu zen. Batek apustua egin, eta beste batzuek onartu egin zuten. Horien artean Seve Tielve izan zen, gaur egungo taldearen presidentea. Hamabost urte pasa dira, baina oraindik pedalei ekiten jarraitzen dute.

Harrobia

“Oso gazte gutxi ibiltzen da bizikletaz Zamudion. Eta egiten duenak ez du gurekin etorri nahi. Zaletasun nahikorik ez dutelako, seguraski”. Seve Tielve Txirrin Txirrin taldearen presidentearen hitzak dira. Ez dute harrobia lantzen, baina kide “ospetsu” bat izan dute: 13 urte zituela, Jonathan González txirrindularia sartu zen taldean. “Gazte-gazte etorri zitzaigun eta ona zela ikusi geunenean, talde federatu batean aritzeko esan genion”. Jonathan profesional mailara ailegatu zen, baina 2005ean korrika egiteari utzi behar izan zion. Once-Eroski, Costa de Almería-Paternina, edo Illes Balears-Caisse d'Epargne taldeetan ibili zen. Bi garaipen lortu zituen.

t: Gaizka Eguskiza / a: Txirrin Txirrin taldea

Seve Tielve ezaguna da Zamudion. Izan ere, tailerra du herrian, eta askok inoiz kotxea bertara eraman dute, ziur asko. Automobilak gustatzen zaizkio Severi eta zaletasuna ogibide bihurtu zuen aspaldian. Baina beste zaletasun bat ere badu mekanikari horrek: bizikletaz ibiltzea. Eta horregatik Txirrin Txirrin txirrindularitza taldea eratzea erabaki zuen duela 15 urte. Taldearen sorreraren istoria aipatzeko modukoa da. “Behin tabernan geundela, batek erronka luzatu zigun: ezetz Zamudiotik Asturiasera bizikletaz joateko gauza izan. Zaletu batzuek onartu, entrenatu eta egin egin genuen”.

Gaur egun urtero-urtero joaten dira Asturiasera. Bizikletaz joan, eta etorri kotxez etortzen dira emazteekin. “Hasiera batean, Zamudio eta Posada de Llanesen arteko senidetzea egin zen eta Udalek

hartu zuten parte. Gaur egun, ordea, taldeen arteko ekimena baino ez da”. Taldea igandero ateratzen da bizikletaz ibili, ariketa fisikoa egin eta ondo pasatzeko helburuekin. Denboraldia otsailean hasi eta irailean amaitzen da. Normalean zortzi edo bederatzi ordu ematen dute bizikletaren gainean eta 100 kilometrotik gora egiten dituzte. Gainera, irteera berezi batzuk egiten dituzte. Uztailean, esate baterako, Frantziako Tourrera joaten dira. “Las-

“Txirrin Txirrin taldea duela 15 urte sortu zen, eta gaur egun 14-16 lagun biltzen ditu igandero bizikletaz ibiltzeko”



kletaz joan!

terketa ikusi eta gero, hango mendiatarik ibili gara aurten. Datorren urtean ere joango gara”.

Guztira, 14-16 bazkide daude taldean eta hurrengo denboraldiari begira pare bat gehiago sartzea espero dute. Gehienak Zamudiokoak dira, baina Txorierriko gainontzeko herrietakoak ere badaude. “Derion beste elkarte bat dago eta topo egiten dugunean, elkarrekin ibiltzen gara; bestela, bakoitza bere kabuz doa”. Adinari dagokionez, denetarik dago, baina bazkideek batez beste 40-50 urte dituzte. “Nagusienak 68 urte ditu, eta gazteenak, 17”. Taldeka joatea gustatzen zaie. “Erritmoak ezberdinak dira, baina bateren bat atzean gelditzen denean, itxaron egiten duqu”.

Euskal Herri osoan gertatzen den moduan, Txorierrin zaletasun handia dago txirrindularitzarako. Hala ere, gure haraneko errepideak zikin daudenez, arazoak dituzte hemendik ibiltzeko. Severen us-



tez. "Kristalak, adarrak-eta daude bazter-
bideetan eta ondorioz, bizikleten gupilak
askotan zulatzen zaizkigu. Behin baino
gehiagotan errepideak garbitzeko eskae-
rak egin ditugu, eta makinek Zamudion
edo Lezaman batzuetan bideak garbitu
arren, askotan ezin gara ibili". Dena dela,
Sevek Txorierri baino nahiago ditu "leku

menditsuak” bizikletaz ibiltzeko –Morga, Gernika...–, “zirkulazio gutxiago baitago”. Bizkaiko Balkoia atsegin du taldearen presidenteak, batez ere. “Ibilbiderik lauena Elorriorakoa da, baina nik Bizkaiko Balkoia –Autzagane, Durango eta ingurukoa– nahiago dut. Menditsua, gogorra da, baina politena da”.

[illegible]

Ezagutu, Aukeratzeko

Programak, genero-diskriminaziorik gabe, enplegu-eskaririk handiena duten industria-lanbideak hurbiltzen dizkie batxilergoko neskei eta mutilei

Behargintza Txorierri eta Politeknika Txorierri Ikastegiak "Ezagutu, Aukeratzeko" programa jarri dute martxan, eskualdeko enpresa batzuekin lankidetzan. Programa Politeknika Txorierri Ikastegiko batxilergoko ikasleriari dago zuzenduta, izan ere, ikasleak adin hartan hasten dira erabakiak hartzen, lanbideko etorkizunari buruz.

Ekimenak helburu bi ditu:

–Alde batetik, ikasleen heziketa- eta lan-orientabidea hobetzea, enpresa munduaren errealitatea eta Politeknika Txorierri Ikastegian ematen diren prestakuntza-programak hurbilduz.

–Bestetik, ikasleek genero-diskriminaziorik gabeko heziketa-aukera hartzea bultzatzea. Horretarako, ahaleginak egingo dira enpresak sentsibilizatzen, langileak hautatzeko prozesuan sexistak ez diren politikak ezartzeko. Horren haritik, emakumearen presentzia indartu nahi da arlo bitan: Fabrikazio Mekanikoan, eta Elektrizitatea eta Elektronikoen. Arlo horiek biak mutilek aukeratzen dituzte normalean, eta lan-aukera handiak eskaintzen di-



INFORMAZIOA:

"Ezagutu, Aukeratzeko" Programa
Behargintza Txorierri
Telefona: 94 453 63 70
Ana Sonia Elorriaga Azkorra
aselorriaga@e-txorierri.com

Politeknika Txorierri Ikastegia
94 403 40 60
Ainhoa Saenz Aristegi
asaenz@txorierri.net

tuzte eskualdean.

Programa 2009. urteko abendutik 2010. urteko martxora bitartean jarriko da abian, eta hiru atalek osatuko dute. Atalok, oro har, mailaz mailako prestakuntza-

ibilbidea osatuko dute, zeinak ikasleen prestakuntza- eta lan-ibilbidea zuzentzen lagunduko baitu:

–**Informazio Sektorialari buruzko Tailerretan** ikasleek industria-familia ezberdinen gaineko azalpen zehatza izango dute: edukiak, bete ahal dituzten postuak, betebeharrak nagusiak... Era berean, punta-puntako enpresen gorabeherak zuzenean ezagutzeko aukera izango dute.

–Eskualdeko **enpresa bateko ekoizpen-unitatea** bisitatuko dute, eta partehartzaileek sektore bakoitzeko enpresen ezaugarriak buruzko ezaupideak handitu ahalko dituzte: prozesuak, produktuak edota zerbitzuak, postu bakoitzari dagozkion ekimenak, eta abar.

–Azkenik, **enpresa batean egoteak** lanbide jakin bati buruz dituzten ezaupideak handitzeko aukera emango die. Era berean, hainbat arlo ezagutuko dituzte sakonki: lan-prozesuak, langileen betebeharrak, produktuak/zerbitzuak, soldadak eta lan-ibilbidearen garapena, besteak beste.



MASKOTA II. AZOKA

ZOO txikia, egun osoan zehar

11:00etarik aurrera:
Umeentzako lehiaketak
Argazki lehiaketak
(Izen-ematea, doan)

17:00etatik aurrera:
Txakur lehiaketa
Mestizoak eta arrazakoak
(Izen-ematea: 4 €)

OPARIAK, lehiakide guztientzat

APAINDU zure txakurra
%50ko beherapena, txakurrentzako
ileapaindegian

Derioko Frontoian
Abenduaren 12an
Izen-ematea:
Mascolas Mainer
Gorbea, 5 (Dorio)
94 404 21 80



Antolatzailea:
Mascolas Mainer

Babesleak:
Derioko Udala
Derioko denda eta tabernak
Calles del Norte



t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Egunkari digitalak, eskola 2.0, SMS-ak, LTDA, Facebook, posta elektronikoa, web 2.0ak... Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gure eguneroko bizitzan sartu dira, eta aldatu egin digute komunikatzeko modua. Gaur egun, blog batean argitara dezakegu guk geuk bildutako informazioa. Geure argazkiekin aurkezpena egin, eta lagunekin parteka ditzakegu; etxeko kontuak kalkulu-orri baten bidez kudeatu...

Halako lanak egiteko lagungarriak ziren programa batzuk oso korapilatsuak ziren garai batean. Bi urterik behin erosi behar ziren eta, gainera, bertsio batekin sortutako artxiboak ez ziren baliagarriak beste bertsioekin erabiltzeko. Orain hainbat ditugu lan hauek guztiak egiteko, eta haietako bat OpenOffice.org da. OpenOffice.org software librea da eta erabiltzen dituen formatuak –hau da, dokumentuak gordetzeko era– estandarrak eta publikoak dira. Softwareak programa hauek biltzen ditu:

–Writer, testuak idatzi eta editatzeko.



- Calc, kalkulu-orriekin lan egiteko.
- Draw, marrazki bektorialak eta diagramak egiteko.
- Impress, aurkezpenak egiteko.
- Math, beste aplikazioetan txerta daitzekoen formula matematikoen editorea da.
- Base, datu-baseak kudeatzeko aplikazioa.

Programa horiek guztiak euskaraz daude eta euskarazko zuzentzailea dute.

Ordenagailuan instalatzeko, *eu.openoffice.org* helbidera jo behar dugu, softwarea deskargatu eta jaitsitako fitxategia zabaldu. Euskarazko zuzentzailean jarri nahi izanez gero, orri berean dauden esteketara jo beharko dugu. Horrezaz gainera, orrian aukera gehiago ditugu eskura: hedapenak (googledocs-ekin sinkronizatzeko edo eleberriak idazten laguntzeko...) eta makroak, banaka batzuk aipatzearen. Emaiozu aukera, ez zaizu damutuko!

Software librea: bere kodigoa, hau da, bere barruko diseinua, eskuratu, kopiatu eta alda dezakegun softwarea da. Adibidez, OpenOffice.org euskaratzeko, ez diogu inori baimenik eskatu behar. Gainera, barrutik zelakoa den dakigunez, errazagoa da egiten. Microsoft Office euskaratzeko, berriz, baimena eskatu behar dugu eta, barrutik zelakoa den ez dakigunez, Microsofteko langileen laguntza beharko dugu itzulpena egin ahal izateko.

Formatu libreak: testu dokumentu bat, aurkezpen bat, marrazki bat... ordenagailuan edozein dokumentu gordetzen dugunean, informazioa kodigo berezi batekin gordetzen da. Kodigo hori librea denean, edonoren eskura dago artxiboa deskodifikatzea, hau da, zabaltzea eta edukia ikustea. Librea ez den formatua erabiliz gero, jabea den enpresaren menpe gaude. Bere programak edo baimena beharko ditugu dokumentua zabaltzeko, eta ezin izango dugu aldatu.



Gora Euskal Herria? Gora euskal harria? Gora euskal ardia?

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on!

-Zelan hartu halan emon!

–Burua biztuta nator gaur Txori.

–Zer **pasetan** dok, ba, Luki?

–**Paseu?** Euskal Herria berbea gauza batzuetarako baino ezin erabili leitekeela.

–Noz bai eta noz ez, ba, mutil?

–Bai euskarako kontuetarako; ez beste ezertarako. Futboleko selekzinoan galarazota dago Gora Euskal Herria esatea, ze hor gora **altzau** gura dozuna ez da euskara, ezpada kirola, eta kirolean espainola edo frantsesa baino ezin zein tekez izan.

–Baina esan neike, Luki, Gora Euskara Batua?

–Hori bai Txori. Baita: Gora Euskal Gramatika; Gora Euskaltzaindia; Gora Baldintza eta Subjuntiboa! Hori legala da.

–Gora Euskal Harria erabiliko joat, orduan. Luki?

–**Et, et, et,** kontuz harriekaz! Harria mendiaren zatia da eta mendia geografia denez, Euskal Herriko Geografiarik ez dago; euskararen geografia bai, Euskal Herrikoa ez. Harria ez da legez euskal, harriak espainolak edo frantsesak dira. Barandiaranek topauko megalitoaqaitik al-

darrika hasi zeintek ez: Gora "Pedruscus
Vulgaris", baina ez Gora Euskal "Pedruscus
Vulgaris".

–Halan bada, Gora Euskal Ardia esango joat ala?

–**Ezta** hori **bere** Txori!

Ze ardia aberea da, ez dau
berbarik egiten. Ezin da
izan euskal. Ardiak beti esaten
dau testu berbera: beeeeeee; musi-
kea aldatzen dau: larri dagoe-
nean zarratuago egiten
dau bekokorra edo oze-
nago; ardiak testua
baino gehiago musikea
ipintzen deutso testua-
ri. Laster agertuko da
kafea hartzen lñaki
Arbilduko, harexeri
itaundu.

Ardia –legala bada- ez
doa Nafarroatik Lapurdira,
ezpada Espainiatik Frantziara.

–**Pentzetan** joat Luki gaurko hire dis-
kurtoak garaun guztiak nahastau deus-
tazala. Behin honezkero ez jakiat zer esan
be: ardi-txakurra; erdi-txakurra ala txakur
erdia?

–Banajoak etxera Euskal Estres hau kentzen.

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa





aisia restaurant

11111

Farmacia del Tirolo - Via Marmata
 38040 - 38040
 T. 0461 4217000
www.farmaciadelirolo.com

BASERHI menu

1. *Carne di manzo con patate, 2. Polpetta di agnello con
 salsa, 3. Polpetta di agnello con salsa, 4. Polpetta di agnello con salsa*

Offerta di *Carne di manzo con patate* con *Carne di manzo con patate*

29 €

Carne di manzo con patate
100g 0020
(no dopo 0000)



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA

Zenbat lagun batu ziren “Bilbotik Txorierrira” ekimenean?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

-Telefonoz: 94 452 34 47

-e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna: Sondikoztarrek
Irabazlea: Angeriñe Peñalver

Bakoren bazterra

Gure glosario txikia (II)

Iñaki Suárez, sumillera

Kaixo aikor!lagunak! Aurrekoan egin genuen bezala, ardoari buruzko temahiztegia konpartitu eta handitzeko proposamena egingo dizuet oraingo honetan ere bai. Dagoeneko termino batzuk ikasi ditugu, zeinak orain ez baitira hain arraroak guretzat, ziur asko. Besteren bat ikasiko dugu; eta lasai, azterketarako ez dira-eta.

Irekia: horrela esaten zaio kolorea behar baino motelagoa duen ardo beltzari. Ardo beltzak kolore-erazketa txikia izan badu, aroma eta tanino-erazketa txikia ere izango du, seguruenik. Eza horrek ardoak akatsa duela adierazten du; hala ere, ardo opakuak dira penintsulako kontsumitzaile gehienek baztertzen dituztenak.

Mingotsa: ardo zakar eta garratza. Akats larria da, ardoa desatsegin bihurtzen duena.

Enberadoa: erabat heldu ez diren mahatsak erabilia egin den ardoa.

Frankoa: aldaketarik edo akatsik ez duen ardoa, usainik edo zapore arrarorik gabekoa, eta hura ekoizteko erabili den mahats motekin bat egiten duena.

Arina: ardo txikia, atsegina izan daitekeena, baina alkohol eta estraktu gutxi-koa dena.



Urduria: pertsona amultsua, aktiboa eta primarioa denari urduria esaten zaio. Ardo urduria nahiko aho-iragotze azkarra duena da (freskoa, arina, apur bat garratza eta ez oso iraunkorra).

Laua: garraztasun-ezaren ondorioz, ahoan orekarik, kontrasterik, eta bizitasunik ez duen ardoa.

On egin!

Etxeko sukaldaritza

Gaztai eta arabizko tartea

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (zortzi lagunentzat):

Basea:

- 8 sobao txiki
- 125 g gurin


Betegarria:

- 250 g gaztai (Philadelphia edo antzekoa)
- 500 ml esnegain
- Limoizko gelatina (sobre bat)
- Arabizko mermeladea



Prestatzeko erea:

Molde desmuntagarri baten sobaoak eta gurina (epel) nahastuko doguz eta nahasketa ondo zabalduko dogu moldean. Limoizko gelatina ur apur baten berotu dogu, desegin arte. Gelatina epeltzen itxiko dogu. Gaztaia, esnegaina eta gelatina irabiagailuaz nahastuko doguz minutu bian. Nahasketa moldera bota eta hozkailuan sartuko dogu lau orduan. Gogortzen danean, moldetik atera eta mermeladea ganetik botako deusagu.



Ercoreca
supermerkatuak

Flikadura adituak



Gomendioak

Amagoia Gezuraga

LITERATURA: NAGUSIAK

- Ihes-lerroak*. X. Altube (Donostia, “Opera Prima” saria 2009)
- Mundua lo dagoen bitartean*. P. Zubizarreta
- Egunentiarren esku izoztuak*. X. Lete
- Izan banintzen Nafarroako errege*. A. Epaltza

LITERATURA: HAUR ETA GAZTE

- Mriziprztinek ez du zorioneko galaperrik nahi*. M. Cameros
- Elkano itsasoak emandako bizitza*. G. Berasaluze
- Txapela buruan, ibili munduan*. I. Egaña
- Arre, arre!*. A. Kazabon
- Belar-olatueta*. K. Santisteban

MUSIKA

- 16 lore*. Gari
- 20 urte*. Su ta Gar
- Payola*. Berri Txarrak

Sudokua

9			8	6	1			5
1				3			6	
8	7		2			4		
	6	7		8	3	1		
	9							
	8	1		4		3		
7		5	1					
							2	4
					4	5	1	6

9	3	4	8	6	1	2	7	5
1	5	2	4	3	7	8	6	9
8	7	6	2	9	5	4	3	1
4	6	7	5	8	3	1	9	2
5	9	3	7	1	2	6	4	8
2	8	1	6	4	9	3	5	7
7	4	5	1	2	6	9	8	3
6	1	9	3	5	8	7	2	4
3	2	8	9	7	4	5	1	6



Antzerkia eta filmak

Derio

- > Euskararen Eguna: ipuin kontalaria. Abenduaren 3an, 18:00etan, liburute-gian.
- > Zine-foruma: *Sorgo Rojo*; ostean, taile-rra. Abenduaren 16an, 19:00etan, Gurea Aretoa.
- > *Aukera gazteak*. Abenduaren 18an, 19:30ean, Gurea Aretoa.
- > Kukuke antzerki eskolaren emanaldia. Abenduaren 21ean, 18:00etan, Gurea Aretoa.

Lezama

- > Anton Irusta ipuin kontalariarekin topaketa. Abenduaren 16an, 18:00etan, liburutegian.
- > Laura Fernandez ipuin kontalaria. Abenduaren 18an, 18:00etan, liburute-gian.

Erakusketak

Larrabetzu

- > Gabonetako postalak. Abenduaren 14tik urtarrilaren 8ra, Anguleri Kultur Etxean.

Musika

Derio

- > Musika Eskolaren kontzertua. Abenduaren 15ean, 19:30ean, Gurea Aretoa.

Larrabetzu

- > Kontzertu Korala. Abenduaren 12an, 19:30ean, Andra Mari elizan. Pleamar Portugaleteko Abesbatza, Sustraiak Begoñako Elkarte Kulturala eta Gazte-lumendi Larrabetzuko Abesbatza.

Irteerak

Lezama


- > Aralar. Abenduaren 5etik 9ra, Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Sollube. Abenduaren 20an, Zorribike txirindularitza taldeak antolatua.

Tailerrak

Derio

- > Aeromodelismo. Abenduaren 20an, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, frontoian. Subyke klubak antolatua.

Lezama



- > Makillajea eta larruazala zain-tzea. Abenduaren 5ean, 12an eta 19an, doan, Uribarri Topalekuan. Izena ematea: 680 610 775 (Idoia Llona)




Bestelakoak

Derio

- > Bertso afaria: Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano. Abenduaren 11n, 20:00etan (lekua zehaztu barik dago; informazio gehiago: udaletxe-an).
- > Bingoa. Abenduaren 18an, 19:30ean, Nagusien Etxean.
- > Argazki VI. Txapelketaren sariak banatzea. Abenduaren 19an, 12:30ean, kiroldegiko kultura aretoa. DAT-ek antolatua.

Larrabetzu

- > Aisialdiko ikastaroetan izena emateko epea: abenduaren 9tik 17ra.




**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegia handia egiten dugu. Berkeba alorretan hegazkin-motor
magetromaguetan, turbinetako eta CO₂ garraiagarri garraioak dutenak, droonak
eta erregulazio, kontrola eta kontrola garraioak eta kontrola erregulazioak. Gure
hegazkinak, turbinak, droonak, erregulazioak, kontrola eta kontrola erregulazioak.
Integratua jaxi duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.
Ingurumena erregulazioak erregulazioak erregulazioak erregulazioak erregulazioak
erregulazioak erregulazioak erregulazioak erregulazioak erregulazioak erregulazioak





SHIADE

Zeure bizitza diseinatu

hilabete honetan ere

RENOVE PLANA

Shia produktuetan

Finantzaketa
doan

Ospatu gurekin
Gasteizko
denda berriaren
zabaltzea

azkar ibili!!

beherapena %25

Estiloko altzarien zentroa

www.shiade.com

Loiu

Txorierrri etorbidea, 25
Tel. 94 453 12 90

Barakaldo

Kareaga, 110-Pab.1a
Tel. 94 404 41 41

Galdakao

Labraga, 1
Tel. 94 457 19 90

Vitoria

Tirado de Porta 5. POLICENO SUBILLABIDE.
TEL. 945 385 693